# AZPEITIAN ZER?

**KULTUR ALDIZKARIA**

57 zenb. 1992ko AZAROA ALE BEREZIA AZPEITIKO UDALA



EUSKADIKO X. EUSKAL
ANTZERKI TOPAKETAK

1992ko ABENDUAREN 1etik 21era

A Z P E I T I A

# AURKIBIDEA


**AZAROA**

4 Larunbata 28 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXO
**SHOW HASERA - IN FRAGANTI - TANTTAKA**

**ABENDUA**

6 Asteartea 1 - Arratsaldeko 3etan - ZELAITXO
**KARPE DIEM - «ESTRENOA»**

8 Asteazkena 2 - Arratsaldeko 3etan - ZELAITXO
**KAXKARINAK ANTZERKI TALDEA - «AI PRAI BARTOLOME AI PRAI BARTOLOME, ZU JOANDA GERO BE HEMEN GAGOZ GOSE»**

10 Osteguna 3 - Arratsaldeko 3etan - ZELAITXO
**HAMAR GEI BAT LEOTARDO - «BAKARRIK ZAUDE?»**

12 Ostirala 4 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXO
**GASTEIZ ANTZERKI TALDEA - «BETIZU»**

14 Larunbata 5 - Arratsaldeko 5etan - UDALETXEA
**OMENALDIA LEON LEON**

14 Larunbata 5 - Gaueko 11etan - ALOÑA
**KAFE TEATROA LOURVIER'S TALDEAREKIN - «LOURVIER'S»**

14 Larunbata 5 - Gaueko 12etan - EPERRA
**KAFE TEATROA TAUN TAUN - «BI KATE»**

16 Igandea 6 - Eguardiko 12,30etan - ENPARANTZA NAGUSIA
**TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX PAILASOAK - «KOKORORIKOKO»**

18 Astelehena 7 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXO
**GOAZ ANTZERKI TALDEA - «PERNANDO, BIZIRIK HAGO ORAINDIO»**

20 Ostirala 11 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXO
**TAUN TAUN KOLEKTIBOA - «TAUN TAUN SHOW»**

22 Larunbata 12 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXO
**XIRRISTI MIRRISTI TALDEA - «GEZUR-MEZUR»**

24 Igandea 13 - Eguardiko, 12,30etan - ENPARANTZA NAGUSIA
**HIKA ANTZERKI TALDEA - «CHARLOTADAK»**

26 Osteguna 17 - Arratsaldeko 7etan - UDALETXEA
**OMENALDIA ANASTASIO ALBISU**

28 Ostirala 18 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXO
**MASKARADA TALDEA - «LOGALEA ZEUKAN EKILIBRISTAREN KASUA»**

30 Larunbata 19 - Gaueko 9,30etan - ZELAITXO
**ANTXIETA ANTZERKI TALDEA - «NORNORINORK»**

32 Igandea 20 - Eguardiko 12,30etan - ENPARANTZA NAGUSIA
**GOLOKA ANTZERKI TALDEA - «AMERIKAR...»**

34 Astelehena 21 - Gaueko 7,30etan - ZELAITXO
**SHOW AMAIERA - SARI BANAKETA eta... GOLDEN APPLE QUARTET**

# AURKEZPENA

Azpeitiko Udalak, bere Kultur Batzordearen bidez agurtzen zaituzte eta bide batez, Euskadiko X. Euskal Antzerki Topaketen berri eman nahi dizue.

Urtez urte sendotu eta sustrai sakonagoak hartzen ari dela agerian dago. Urte honetako edizioarekin hamarkadaren muga gainditzen da, eta Azpeitia euskal antzerkiarentzat Euskal Herriko plaza goxoena gertatzen da.

X. edizio honetan, haseran genituen helburu berberekin jarraitzen dugu:

- EUSKARA BULTZATZEA.
- ANTZERKI BERRIAK SORTARAZTEA.
- EUSKARAZ IDATZITAKO ANTZERKIAK ANTZEZTEA.
- ANTZERKI TALDEAK ANIMATZEA ETA BERAIEN LANAK HOBETZEKO GIROA ETA ESKEINTZAK IPINTZEA.

Beste bi gauzaren berri ere eman nahi dizuegu; aurten Topaketen barnean aipamen berezi batzuk egin nahi ditugu, honela, Anastasio Albisu idazle ospetsua omenduko dugu eta, iaz bezala, aurtengoan ere Ikastetxeetako gazteentzat Hazparneko L. Leon idazlea omenduz, Irrati Lehiaketa bat antolatuko dugu.

Aurreko urtetan bezala, aurtengo Topaketetan gauzak osatzen eta obetzen jarraituko dugu. Datozen edizioetako bide berriak finkatu nahi genituzke, beste hamarkada oparotsua izan dedin.

Aize berritzearen helburua betetzen joateko etor daitezkeen sujerentzi guztiei zabalik gaude eta beraz zenbait proiektu edo idei berri onartzeko prest.

Hemen duzue gure nahia.

KULTUR BATZORDEA



# SHOW HASERA

Eguna:
Azaroak 28 Larunbata

Ordua:
Gaueko 9,30etan



RA

## SINOPSIA

Eman dezagun kamarazko bostekote bat. Etiketaz jantzirik, eta izugarrizko trebeziaz «Tururu» eta «Poronponpero» bezalako abestiak jotzen hasten dela.

Eman dezagun baita, lau musikoek kontzertu bitartean zuzendaria hiltzen saiatzen direla, eta gertatutakoa izkutatzen ahalegintzen direla.

Eman dezagun gainera, ikuslego osoa hilketa baten lekuko eta laguntzaile bihurtzen dela.

Ba, hori guztia duzu «ADAGIO VIOLENTISIMO». Humorez jositako ikuskizun bat. Izugarrizko abiadura hartzen duen komedia bat. Eromenezko istorio korapilatsu bat. «Agatha Christie»-ren ikerketa misteriotsuak eta zinema heltzeko gertakizunen azpi-jokoak batera biltzen dituen parodia bat... hori guztia duzu.

**Eguna:**
**Azaroak 28 Larunbata**

**Ordua:**
**Gaueko 9,30etan**

**Lekua:**
**Zelaitxo**

**Antzezlana:**
**IN FRAGANTI - TANTTAKA**




# KARPE DIEM

**Eguna:**
**Abenduak 1 Astea**

**Ordua:**
**Arratsaldeko 3et**



## SINOPSIA

Gure antzerki lanaren helburua zera da:

Antzerki baten estrenoaren inguruan dauden iritzi desberdinak, arazoak... etb. azaltzea. Honetarako antzerki talde bat taberna batetan bildu dugu, geroago antzeztuko duten antzerkiari buruz hitzeginaz. Honekin adierazten da beste antzerki bat datorrela, hau da, antzerkiaren barruan beste antzezlan bat datorrela «Estrenoa».

Estrenoa berriz parke batean gertatzen da.

Zer gerta daiteke egunean zehar parke batetan pertsonai bitxi batzuk elkartzen badira?

## FITXA TEKNIKOA

**Eszenatokia:**
Luzera 7 metro, zabalera 5 metro.

**Argia:**
Bertako fokoak erabiliko ditugu.

**Musika:**
Musika aparatu arrunta.

## FITXA ARTISTIKOA

**Antzerki zuzendaria:**
AXEN ESCALADA

**Egilea:**
«KARPE DIEM»

**Banaketa:**
JON ETXANIZ
MIREN JUARISTI
MIREN GURUTZE LARRAÑAGA
AITZIBER JUARISTI
AINHOA LARRAÑAGA
LEIRE JUARISTI
IZAR ARREGI
MARI JOSE NIEVES
MAITANE IZAGIRRE
NERE IRIARTE
AINARA BIDAL

**Argiak eta eszenatokia:**
«KARPE DIEM»

M

**Eguna:**
**Abenduak 1 Asteartea**

**Ordua:**
**Arratsaldeko 3etan**

**Lekua:**
**Zelaitxo**

**Antzezlana:**
**«ESTRENOA»**







# KAXKARINAK ANTZERKI TALDEA

Eguna:
Abenduak 2 Asteazk

Ordua:
Arratsaldeko 3etan



## AURKEZPEN BERTSOAK

Lehenik ikusleak
agur ta ohore,
bertan gaude hamahiru
gaztetxo dotore.
Mendiguren idazle
eta gu aktore
«Ai ai Prai Bartolome
ai Prai Bartolome
zu joanda gero be
hemen gagoz gose»

Bertso hauek direnez
aurkezpen antzera,
horra gure asmoak
hauekin batera.
Denbora tarteetan
hor saiatu gera
antzerkia aitzakiz
gailenduz euskera
on dagizuela ta
bagoaz hastera.

## FITXA ARTISTIKOA

**Aurkezlea:**
LEIRE IRISARRI

**Prai Bartolome I:**
JUANMA AMAS

**Prai Bartolome II:**
XABIER RUIZ

**Jaungoikoa:**
ENARA FERNANDEZ

**Aingeru I:**
IXONE BAKAIKOA

**Amona:**
LOREA MORALES

**Txistularia:**
IRANTZU ETXEBERRIA

**Txistulariaren emaztea:**
PATRIZIA AZKONA

**Gazte I:**
AMAGOIA BASARTE

**Gazte II:**
JAIONE IRISARRI

**Gazte III:**
EIDER BERGARETXEA

**Dantzari I:**
PATRIZIA AZKONA

**Dantzari II:**
ENARA FERNANDEZ

**Dantzari III:**
LEIRE IRISARRI

**Dantzari IV:**
MAITE PINILLOS

**Dantzari V:**
JAIONE IRISARRI

**Abadea:**
DABID LAREDO

**Aingeru II:**
MAITE PINILLOS

**Balendin Berriotxoa:**
LEIRE IRISARRI

TALDEA

**Eguna:**
**Abenduak 2 Asteazkena**

**Ordua:**
**Arratsaldeko 3etan**

**Lekua:**
**Zelaitxo**

**Antzezlana:**
**«AI PRAI BARTOLOME ...»**



# HAMAR GEI BAT LEOTARDO





Eguna:
Abenduak 3 Ostegun

Ordua:
Arratsaldeko 3etan



## SINOPSIA

Jarraian aurkeztera goazen obra hau, ekitalde desberdinetaz osatua dago. Ekitaldi hauen mamaia, eguneroko gertaera arruntetan oinarritzen da.

Ekitaldi bakoitzak, egoera desberdinak agertuko dizkigu:

Gazte batek jasaten duen itomen eta inkomunikazioa, telebistaren burujatea. Sinismen itsua, etxeko andreen egoera eta berauen ondorioak, pertsonak geure buruari egiten dizkiogun prejuizioak eta inibizioa, bakardadea,...

Orokorrean, gizakion sentimendu desberdinak eguneroko gertaera basikoetan nola ematen diren agertzea. Guzti hau humore eta xamurtasun hildotik landua.

Edozein lekuko, edozein eguneko, edozein ordutan gertatzen diren egoera arrunten islada humila aurkeztera goaz.

## FITXA TEKNIKOA

**Neurriak:** 6 x 330 m.

**Antolaketa:**
Oihalezko zapiak eta 14 burnizko hanketatik isekiak.

**Argindarra:**
12 foko, 220 indarrarekin, 5.000 W. guzira.

Musika kaxa, 2 anplifikadore.

## FITXA ARTISTIKOA

**Ikaslea:**
ALAITZ OLAIZOLA

**Ikaslearen itzala, pailasoa, matxista:**
IGOR LANDA

**Telebistako aurkezlea, zaharra:**
ASIER AGIRIANO

**Pailasoa, neska gaztea:**
LEIRE EIZMENDI

**Pailasoa, haurdun dagoen emakumea:**
LARRAITZ GURRUTXAGA

**Etxekoandrea:**
NEREA ODRIOZOLA

**Haurra:**
XUAN AIZMENDI

**Bizilaguna:**
SARA GARZIA

**Bizilaguna, pailasoa, siamesa:**
UNAI LIZASO

**Ejekutiboa, siamesa:**
MIGEL SANTAMARIA

ARDO

**Eguna:**
**Abenduak 3 Osteguna**

**Ordua:**
**Arratsaldeko 3etan**

**Lekua:**
**Zelaitxo**

**Antzezlana:**
**«BAKARRIK ZAUDE?»**




# GASTEIZ ANTZERKI TALDEA

Eguna:
Abenduak 4 Ostirala

Ordua:
Gaueko 9,30etan



TALDEA

## PATXI «IZUTURIK»

«Patxi Biskert izuturik dago. Eta beldurra ez da Betizun egun hilik diren Txomin Iturbe edo Ignacio Ellakuria bezalako euskaldunekin berba egiteagatik, jakina, Patxik antzezlanean bere bizitza biluzik agertu beharragatik baizik. Lotsa baino, izua diot ikuskarian nire bizitzaz aritzeari, esan zuen Zizurkilgo aktoreak.

Horrezaz gainera, betidanik zinemagintzari loturik egon izan den aktore hau beldur pixka batez dabil Gasteiz Antzerkiaren lan berrian tauletara aurreneko aldiz igoko delako. Azken hamar urteotan hogei bat pelikulatan lan egin eta gero, antzerkigintzan trebatzeko garaia iritsi zaio.

Patxik, badaezpada ere, badirudi eskutan dauzkan arlo guztiak ondo lotu nahi dituela eta horrexegatik edo, Betizuren euskarazko bertsioaren testua egin du aktoreak berak.

Guzti hau gutxi balitz, Patxi Biskert kantatu ere egingo du. Hertzainak taldean maiz askotan aritzen den Bingen Mendizabalek landutako trikitixa, rap eta abarreko soinuak kantatuko ditu, beste aktoreekin batera. Bapo ikuskaria, beraz».

OLALDE
EGUNKARIA (1992ko Irailean)

## FITXA TEKNIKOA

Gutxienezko neurriak ikuskizuna egiteko.

**Altura:** 5 metro.

**Zabalera:** 8 metro.

**Sakona:** 7 metro.

60.000 watiotako gutxienezko argia behar da.

Kamara beltza beharrezkoa da.

## FITXA ARTISTIKOA

**Zuzendaritza:** ANTONIO MALONDA

**Aktoreak:**
PATXI BISKERT, JON GABELLA
IZASKUN ASUA

**Musika:** BINGEN MENDIZABAL

**Diseinu eskenografia:** CARLOS P. DONADO

**Burutzapen eskenografia:**
CARLOS DONADO eta ISIDORO MANOVEL

**Diseinu aldagela:** JUAN ZARATE

**Burutzapen aldagela:** MENTXU BLANCO

**Diseinu argigintza:** LUIS ITURRI SOJO

**Argazkilaritza:** JOSEBA OLALDE

**Diseinu grafikoa:** JOSE MARIA BAKERO

**Atrezzo:** JAVIER SAEZ DE LA FUENTE

**Enkargatu teknikoa:**
OSKAR PEREZ DE SAN ROMAN

**Zuzendaritza idazkaria:** GOIZANE ANTON

**Produkzio artistikoa:** CARLOS GIL ZAMORA

**Produkzio exekutiboa:**
TEATRO GASTEIZ ANTZERKI, SOCIEDAD LIMITADA

**Eguna:**
**Abenduak 4 Ostirala**

**Ordua:**
**Gaueko 9,30etan**

**Lekua:**
**Zelaitxo**

**Antzezlana:**
**«BETIZU»**




# OMENALDIA LEON LEON
## KAFE TEATROA LOURVIER'S TALDEAREKIN
## KAFE TEATROA TAUN TAUN



## LEON LEON IDAZLEA
## BI HITZ

Deitura León zuen. Izena ere bai.
na izen berdina zeukan beste bateki
konfunditzeko, Pierre León LEON
deitu izan dute. Lapurdiko Hazpa
sortua zen .1896.eko Abuztuaren 1
Familiako zazpigarren haurra zen.
anaia eta sei arreba zituen.

Ikasketak egin ondoren, apaiztu
eta luzaz Uztaritzeko erretore egon.
azken arnasa, 1962an. eman zuen.

Euskal literaturan, León León, be
ki itzultzaile gisa ezagutua da. «
Kristoren imitazionea» eta ere La Fo
ne frantses idazlearen «Alegiak» eus
tu baitzituen, «Alegia deusez» izen
pean.

Bestalde, artikulu zenbaitekin b
hamahiru ipuin asmatu zituen bai e
komedia (1), «gure Herria» aldizk
publikatuak izan zirenak.

Komedia hitza nahitara erabiltze
León Leónek idatzi esketxa horie
tzeko, eta bestalde, garai hartan, I
deko jendeak behintzat, «antzerki»
bera ez baitzuen ezagutzen ere!

Derragun, León León izan del
rraldeko bigarren komedia idazle «
tua». Lehena, Jean Barbier, Senp
erretorea dugu. Hark zuen, 1920an.
ruan, erabaki eta finkatu, komedia
barruan edo behintzat aterbean egin
rela. Ordurarte, Iparraldean, iku
guztiak, dela pastorala, maxkara
abar, kanpoan egiten ziren.

Pastoraletan, ez zuten gizonek
parte hartzen.

Aldiz konturako zarete, León L
sei komedietatik bostetan, antzezle
nak, denak emakumezkoenak dire
hori zergatik? Garai hartan, Eliz
elizgizonek ez zutelako onartzen
mutilek teatroa elkarrekin egin z
Beraz, edo mutilek bakarrik, edo
bakarrik osatzen zuten taldea. Ger
ere, mutilak neska jantzitan emate
edo aldrebes.

Bere komediendako León León
keratu zituen gaiak oso xinpleak d
tza giroko, xelebrekeriekin, lasai
egiteko. Batzutan, gogoetagarri iz
tezke, urrikiaren itzulian batez ere.

Euskera aldetik, atzo erabiltze
tik eta gaur-egungoaren artean, no
daketa! Zenbat esamolde desberd
zenbat hitz gehiago erabiltzen ez
nak, hala nola «errekitu» eta beste.

Dudarik gabe, Hazpandar id
merezi zuen errauspetik jalgi ge

DANIEL LANDART

(1) Gure xokoan.
Matturinaren gapoinak.
Ttomas ezkongei.
Herriko besta biharamunean.
Mehetegiko nausia.
Haurrak azken hitza bere.

**Eguna:**
**Abend. 5 Larunb.**

**Lekua:**
**Udaletxea**

**Ordua:**
**Arratsaldeko 5etan**



*Valentín*

LEON
LDEARKIN
N TAUN

## LEON LEON IDAZLEAZ BI HITZ

Deitura León zuen. Izena ere bai. Baina izen berdina zeukan beste batekin ez konfunditzeko, Pierre León LEON ere deitu izan dute. Lapurdiko Hazparnen sortua zen .1896.eko Abuztuaren 18an. Familiako zazpigarren haurra zen. Bost anaia eta sei arreba zituen.

Ikasketak egin ondoren, apaiztu zen eta luzaz Uztaritzeko erretore egon. Bere azken arnasa, 1962an, eman zuen.

Euskal literaturan, León León, bereziki itzultzaile gisa ezagutua da. «Jesu Kristoren imitazionea» eta ere La Fontaine frantses idazlearen «Alegiak» euskaratu baitzituen, «Alegia deusez» izenburupean.

Bestalde, artikulu zenbaitekin batera, hamahiru ipuin asmatu zituen bai eta sei komedia (1), «gure Herria» aldizkarian publikatuak izan zirenak.

Komedia hitza nahitara erabiltzen du, León Leónek idatzi esketxa horien deitzeko, eta bestalde, garai hartan, Ifarraldeko jendeak behintzat, «antzerki» hitza bera ez baitzuen ezagutzen ere!

Derragun, León León izan dela Iparraldeko bigarren komedia idazle «famatua». Lehena, Jean Barbier, Senpereko erretorea dugu. Hark zuen, 1920an. inguruan, erabaki eta finkatu, komediak gela barruan edo behintzat aterbean egingo zirela. Ordurarte, Iparraldean, ikusgarri guztiak, dela pastorala, maxkarada eta abar, kanpoan egiten ziren.

Pastoraletan, ez zuten gizonek baizik parte hartzen.

Aldiz konturako zarete, León León-en sei komedietatik bostetan, antzezleen izenak, denak emakumezkoenak direla. Eta hori zergatik? Garai hartan, Elizak edo elizgizonek ez zutelako onartzen neskamutilek teatroa elkarrekin egin zezaten. Beraz, edo mutilek bakarrik, edo neskek bakarrik osatzen zuten taldea. Gertatu da ere, mutilak neska jantzitan ematen zirela edo aldrebes.

Bere komediendako León León-ek aukeratu zituen gaiak oso xinpleak dira: fartza giroko, xelebrekeriekin, lasai irripar egiteko. Batzutan, gogoetagarri izan daitezke, urrikiaren itzulian batez ere.

Euskera aldetik, atzo erabiltzen zenetik eta gaur-egungoaren artean, nolako aldaketa! Zenbat esamolde desberdin! Eta zenbat hitz gehiago erabiltzen ez ditugunak, hala nola «errekitu» eta beste.

Dudarik gabe, Hazpandar idazleak merezi zuen errauspetik jalgi genezan!

DANIEL LANDART

(1) Gure xokoan.
Matturinaren gapoinak.
Ttomas ezkongei.
Herriko besta biharamunean.
Mehetegiko nausia.
Haurrak azken hitza bere.

## SINOPSIA

Lourvier's estilo eta forma, histori eta pertsonaien cocktail bat da.

Fantasia bat, ponpoxo eta ozen izenarekin, atseginaldi on bat eskeintzen duena kontemplatzen dutenei.

**Aktoreak:**
LOURDES BEDIA
JAVIER MERINO

**Pianista:**
JOHN CRAWFORD DE COMINGES

## SINOPSIA «BI KATE»

Alfontso eta Eufemia. Bi agure zahar. Urte asko lehortzen jarrita. Aulki banatan eserita egurrezko tauladi baten gainean, honek ere urte asko lehortzen jarrita. Asperdura lotan dago beren abar igarrezko eskuetan. Denbora nola badoan begiratzen dute, zerbait begiratzearren. Bazkalosteko ordu astuna da. Siesta esnatzen den ordua jendeak lo egin dezan. Jendea da baita siestara joan aurretik burrunburrunka dabilen mandaeuli despistatua. Biak begiratu egiten dute eta aspertu egiten dira begiratzen. Leku berdinera begiratzen dute, nahiz eta bakoitzak gauza desberdina ikusi. Beren senera etortzen dira eta eskuetan zintzilik errebistan erreparatzen dute.

TAUN-TAUN

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **Eguna:** Abend. 5 Larunb. | **Lekua:** Udaletxea | **Lekua:** Aloña | **Ordua:** Gaueko 11etan | **Antzezlana:** «LOURVIER'S» |
| **Ordua:** Arratsaldeko 5etan | | **Lekua:** Eperra | **Ordua:** Gaueko 12etan | **Antzezlana:** «BI KATE» |

# Pailasoak



**TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX PAILASOAK**

Eguna:
Abenduak 6 Igandea

Ordua:
Eguardiko 12,30etan

*...oak*



...RROTX PAILASOAK

## SINOPSIA

TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX pailazo hirukoteak pailazo talde tradizionalen hildoa jarraitzen du, hau da, batek azkarrarena betetzen duen bitartean (TAKOLO), beste biek (PIRRUX eta PORROTX) bihurrikeriak eta aldrebeskeriak eginez leloarenak betetzen dituzte.

Pailazoengandik jasotzen dugun lehenengo mezua barre egitearena da. Poztasun egoera honetaz baliaturik TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTXek beraien ikuskizunaren bi zutabeak finkatzen dituzte. Bata, egoera eta une alai, atsegin eta ahaztuezina sortzean oinarritzen dena. Bigarrena berriz, eta talde honen mamia delarik, ikuslegoaren eta artisten artean euskarazko komunikazioa lantzen duena.

## FITXA TEKNIKOA

**Eszenatokia:**
Dekorazioa (3 m. altuera x 8 m. luzera).
Azpiko toldoa (6 m. luzera x 8 m. zabal).

**Megafonia:**
2.000 W., 4 mikro inalanbrikoak.

## FITXA ARTISTIKOA

**Takolo:** AGUSTIN MUJIKA

**Pirrutx:** PATXI SANZ

**Porrotx:** J.M. AGIRRETXE

**Kutxutxina:** IXABEL BEREZIARTUA

**Megafonia teknikoa:** ION MUJIKA

**Toldo diseinua:** JAUREGI

**Oihal diseinua:** MAIKA

**Margolaria:** RAKEL LEGORBURU

**Musika:** IMANOL URBIETA

**Musika moldaketa:** I. SALVADOR

**Kartel diseinua:** J. TOKERO

**Taldearen arduraduna:**
AGUSTIN MUJIKA IARTZA
K/ Ostatu-buru, 3
Zaldibia (Gipuzkoa)
Telf.: 16 11 53

**Antzezlanaren izena:** KOKORORIKOKO

**Egilea:** TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX

**Zuzendaria:**
TAKOLO, PIRRUTX ETA PORROTX

**Iraupena:** ORDUBETE

**Eguna:**
**Abenduak 6 Igandea**

**Ordua:**
**Eguardiko 12,30etan**

**Lekua:**
**Enparantza Nagusia**

**Antzezlana:**
**«KOKORORIKOKO»**

# PERNANDO BIZIRIK HAGO ORAINDIO



XABIER MENDIGUREN

## GOAZ ANTZERKI TALDEA

Eguna:
Abenduak 7 Astelehena

Ordua:
Gaueko 9,30etan

# ...O BIZIRIK HAGO ORAINDIO



XABIER MENDIGUREN

## ANTZERKI HONEN SORRERAZ, BI HITZ

1986. urtea zen «Ama begira zazu» baino askoz lehenago. Nere herrian, Beasainen, bazen antzerki talde bat sortzeko asmoa. Talde txikia, euskalduna, prestaketa haundirik gabea, antzerkirik ikusten ohituta ez dagoen gure Goierri honetako herri txikietan zehar obra errazak emateko helburuz sortua. Asmo apalak, baina bere apalean ederrak. Eta talde-asmo harentzat, amezketarren pasadizo ezagun batzuetan oinarritua sortu nuen Pernando hau. Hau ere apala, baina bere txikian helburuak oso argi zituena: antzerki umoretsu egitea, ikuslearentzat erraz eta atsegina, gure ahozko euskaratik ahalik hurbilen egongo zena. Geroztik frogatu ahal izan da, antzerki-molde honek izan dezakeela ikuslerik eta arrakastarik.

Talde hura ordea, ez zen eratu azkenean. Ez da harritzekoa zaila eta gogorra bait da antzerkia egitea, batez ere zaletu mailan eta euskaraz. Eta nere Pernando, hantxe geratu zen, behiaren lau titietatik edan ezin zuen bostgarren txahalaren moduan. Gero, testua eginda zegoela aprobetxatuta, , Euskaltzaindiaren 1988ko «Toribio Alzaga» lehiaketara aurkeztu eta zorte ona izan nuen. Sariak ekarri zuen argitalpena, eta bazirudien hantxe amaituko zela Pernandoren ibilia.

Orain berriz, Debako talde adoretsuak heldu dio. Zorionak. Honexek erakusten digu Pernando bizirik dagoela oraindik eta ez dela goierritarrena soilik. Txindoki mendi azpitik ihes egin du kostaldera, eta hemendik laster abiatuko da Euskal Herri osoa barrez jartzera. Hala bada, gora debarrak eta aupa. Goaz!

XABIER MENDIGUREN
1992 Udaberria

## FITXA ARTISTIKOA

**Idazlea:**
XABIER MENDIGUREN ELIZEGI

**Zuzendaria:**
LUKAS DORRONSORO

**Jokalariak:**
JOSU IRIONDO
Pernando..
LUIS MARI AGIRREZABALA
Don Gaxpar, Erretorea.
DORLETA LAZAROBASTER
Joxepa, Pernandoren emaztea.
ARANTZA EGAÑA
Bittori, Erretorearen neskame neskazaharra.
JOSEBA ESKUDERO
Joxe, Pernandoren aita.
MAIDER ANDONEGI
Joxepantoni, Pernandoren ama.
AITOR LARRAMENDI
Martin Joxe, Pernandoren semea.
INAZIO LARRAMENDI
Zabala, Pernandoren laguna.

**Eszenografia:**
JOSU IRIONDO

**Jantziak:**
GOAZ TALDEA

**Argiak:**
KARLOS LARRAMENDI

**Musika-soinua:**
KOLDO ANTA
JUANMA OIARTZABAL

**Txartela:**
JOSE INAZIO TREKU

...KI TALDEA

**Eguna:**
**Abenduak 7 Astelehena**

**Ordua:**
**Gaueko 9,30etan**

**Lekua:**
**Zelaitxo**

**Antzezlana**
**«PERNANDO, BIZIRIK HAGO ORAINDIO»**




# TAUN TAUN KOLEKTIBOA

**Eguna:**
**Abenduak 11 Ostirala**

**Orduak:**
**Gaueko 9,30etan**



## SINOPSIA

«¡Bien venu, bien venidos, wellcome,... jaun andreok... ongi al zaudete? Eseri eta prestatu New Orleansko izarrik haundienak gure aspertzeko, Jaun Andreok, eszenategi honetatik pasako dira BARBY bedette ederrarekin hasi eta HARLEMGO ERREGETARAIÑO VELCRO BANDetik pasatuz eta SAMI, claqueteko izarra. Hauek eta askoz gehiago helburu bakarrarekin: DIBERTITZEA... Ondo hari gara pasatzen? Lasai, dena ikuskisunaren barruan dago. Zer? Bizimodua konplikatua dela? Utzi zuen problemak kanpoan!... Hemen barruan bizimodua ederra da, jendea ederra da eta dena da ederra... Pentza... neu ere ederra naiz! Ja, ja, ja...».

Mack-ek gure nagusiak isteko arriskuan eta jendeari hau sentierazten dion «variette club» xume bateko gaua aurkezten digu. Baina ala eta guztiz ere, ikuskizunak aurrera egitea lortuko du.

## SUJERENTZIAK

Publiko helduarentzat, batipat.

Eszenagiaren gehienezko alturea, ahal dela metro bat.

Eszenagiaren gutxienezko altuera, ahal dela, 0,5 m.

Iluntasun osoko barrukaldetan egitekoa.

## FITXA TEKNIKOA

**Altuera:** 3,5 m.

**Zabalera:** 5 m.

**Sakonera:** 4 m.

**Tentsioa:** 220 V.

**Argindarra:** 4.000 W.

**Montatzeko Denbora:** 4 Ordu.

**Jasotzeko Denbora:** 2 Ordu.

IBOA

**Eguna:**
**Abenduak 11 Ostirala**

**Ordua:**
**Gaueko 9,30etan**

**Lekua:**
**Zelaitxo**

**Antzezlana**
**«TAUN TAUN SHOW»**




## XIRRISTI MIRRISTI TALDEA



**Eguna:**
**Abenduak 12 Larunbata**
**Ordua:**
**Gaueko 9,30etan**




ALDEA

## SINOPSIA

Emanaldi berri hontan, zazpi antzerki labur dira oihal batean josiak. Eguneroko edo irudimenezko bizia erakusten dute eta... hauen filosofia izan liteke «Errex da lur hontan petzero gelditzea». Dena den, irriaren giltza norbaitek dauka!

Historio-misterio horiek Piarres Lafittek idatziak ditu. Daniel LANDART eta Kattalin SALLABERRY-k antzerki modura moldatu dituzte.

Antzerki hontan, nahi ukan dugu lehenagoko historiek, gaurko irudia har zezaten eta bereziki argi jokoek garrantzia haundia badaukate.

## FITXA TEKNIKOA

**Argiak:** 13 projektore.

**Indarra:**
Orotara 13 Kw (1 x 1 Kw).

**Harien luzetasuna:**
Alimentazioa 20 m. eta 3 «multipaires» bakoitza 6 metrotakoa.

**Beharrezkoa zaiguna:**
Mahain bat, 2 metro luzetakoa.

## FITXA ARTISTIKOA

**Jokalariak:**
PANTZO HIRIGARAY
PANTXOA ETXEGOIN
YVONNE POCHELU
BERNADETTE OXANDABARATZ
PIERRE LARRE
PEIO BEROKOIRIGOIN

**Taula zuzendaria:**
ENEKO OLAZAGASTI

**Teknikan:**
JEAN LOUIS PEBET

**Soinekoak:**
HARI-PIRU LANTEGIA - BAIONA

**Maskak:**
ANNIE ONCHALO

**Obraren idazleak:**
PIARRES LAFITTE eta anonimoak. Testo guziak, DANIEL LANDARTek antzerki modura ber moldatuak ditu.

**Eguna:**
**Abenduak 12 Larunbata**

**Ordua:**
**Gaueko 9,30etan**

**Lekua:**
**Zelaitxo**

**Antzezlana:**
**«GEZUR-MEZUR»**



*Valentín*

# HIKA ANTZERKI TALDEA



Eguna:
Abenduak 13 Igandea

Ordua:
Eguardiko 12,30etan



Valentín

## SINOPSIA

Hortik zehar, handik hemenka, egun sentiko lehen izpiekin batera hirian dabil,... Charlot da.

Arlote bat, besterik ez da, edo akaso Lord haundi bat, turista ere agian, amorante hutsa beharbada... Charlot, bibote txikia duen gizontxoa.

Neskatila bat du lagun, galdutako txakur bat ere bai,... atzetik daukate polízia eta aberats potoloa,...

Charlot eta bere jendea dira.

## FITXA TEKNIKOA

**Izenburua:**
«CHARLOTADAK»

**Zuzendaria:**
TALDE LANA.

**Iraupena:**
Ordu erdi historia bakoitzeko.

**CHARLOT JANTOKIRA DOA:**
Argi dago ba, terraza baten beharra dagoela.

**EZKONTZA IZTILOTSUA:**
Eleiza aurre baten burutzen da ekintza.

**HONDARTZA EGUNA:**
Hondartzarako prestatua egon arren, iturri albo baten egiteko ere egokitua dago.

Hiru istorioak mutuak dira, akordeoi bate soinupean gertatzen dira, zuzenean. Dena dela, hiru istoria izan arren binaka jokatzen ditugu beti, bat goizez, eta bestea arratsaldez adibidez.

**BEHARREZKOAK:**
– Terrazakoan: Terrazaren baimena, bi mahai gordetzeko aukera. Taxi bat. (Taxiak aukera izan beharko luke terrazaraino heltzeko.

– Eleizakoan: Taxia baita, eta eleizako ateak irekiak egotea.

– Hondartzakoan: Eguraldi oso ona.

LDEA

**Eguna:**
**Abenduak 13 Igandea**

**Ordua:**
**Eguardiko 12,30etan**

**Lekua:**
**Enparantza Nagusia**

**Antzezlana**
**«CHARLOTADAK»**



# OMENALDIA ANASTASIO ALBISU



Eguna:
Abenduak 17 Ostegu

Ordua:
Arratsaldeko 7etan



## ANASTASIO ALBISU

Nor naiz ni?

1935gn. urtean sariketa bat izan zen Gasteizko apaizgaitegian Mixie-Baskunak eratua alegia. Balendin Berriotxoaren martiritza zan nere antzerkitxoaren gaia ta NI EZ KRISTARRA...!! bere izena. Lenengo saria eman zidaten eta hauxe izan zan nik idatzitako lenengo antzerkia.

Zoritxarreko gerratea etorri zan gero, ta aretxek il edo oztu zituan gure ametsik ederrenak.

1954gn. urtean, ordea, beste leiaketa bat eratu zuten Zarautzen. Bigarren saria eman zidaten SORTZETIK GARBIA izeneko antzerkitxoa zala-ta.

1956gn. urtean Arantzazu lenengo saria eman zidaten bertan, MESEDERIK AUNDIENA antzerkiatik.

Auetzaz-gañera baditut beste antzerki ta antzerkitxo batzuk:

- 1936gn. urtean GAROA.
- 1936gn. urtean NI EZ NESKAZAR...!!
- 1945gn. urtean GABON-GAUA.
- 1955gn. urtean OGI TA ARDO, EDUARDO.
- 1958gn. urtean ON EGITEAN DAGO ZORIONA.
- 1959gn. urtean LOIOLA-XABIER.
- 1960gn. urtean GARTXI-XIMENO.
- 1961gn. urtean PERNANDO AMEZKETARRA.
- 1965gn. urtean MOSKORRA PARREGARRI.
- 1974gn. urtean EUSKALERRIAREN ETORKIZUNA.

Badet ere argitaratutako beste zenbait ipuin: EZ DA PUTZA, GERO, JAUNA; zenbait liburu: GARTXI-XIMENO, ZULOAN, AMEZKETAKO PERNANDO eta abar. Baditut zenbait itzulpen, bertso eta abar luze bat.

Lazkaon jaio nintzen 1915gn. urteko Martxoaren 27an.

Saturraranen eta Gasteizen egin nituan nere apaiz ikasketak, eta 1939gn. urtean egin nintzen apaiz Bergaran.

- 1943gn. urtean etorri nintzen Azkoitira apaiz eta hementxe bizi naiz ordutik.
- 1989gn. urteko Ekainaren 29an. AZKOITIKO SEME aukeratu ninduan, aho-batez, Azkoitiko Udalak.

Hau da nik, nere buruan, esan dezakedan guztia.

ANASTASIO ALBISU

LBISU

**Eguna:**
**Abenduak 17 Osteguna**

**Ordua:**
**Arratsaldeko 7etan**

**Lekua:**
**Udaletxea**

**Omenaldia:**
**Anastasio Albisu**




# MASKARADA TALDEA

Eguna:
Abenduak 18 Ostira

Ordua:
Gaueko 9,30etan



## SINOPSIA

Lanaren nondik-norakoa.

Obra hau Bernardo Atxaga-ren antzerkilan bakanetarikoa da. Esan daiteke, hala ere, Maskaradarena berarena ere badela, idatzia izan zen momentuan, 1981ean, elkarlanean aritu bait ziren idazlea eta taldea. Oraingo honetan ere Maskarada-k zenbait moldaketa egin ditu eskenaratzeko orduan.

Gidoiaren ardatza ekilibrista baten kaso harrigarria da: «Champignon», inoizko ekilibristarik onenaren kaso ezin harrigarriagoa. París, New York, Calcutan... mundu osoan ezagunak dira haren abilezia eta balentriak. Bere karrera artistikoaren gailurrean dagoenean, hale ere, hara non motorista misteriotsu bat haren ametsetan sartu eta esnatu egiten duen. Lorík egin gabeko gau batzu pasata gure heroia ez da kablearen gainean lan egiteko gauza izango. Kaso bitxia, benetan, gure lagun ekilibristarena. Are bitxiagoa, ordea, haren arazoak konpontzeko era...

Gaiaren aldetik, ikusten dugunez, haurrei zuzendutako ipuin xamurra da. Ipuin antzerkiratua, ordea, eta esan dezakegu bere alde formalek, hau da, bere estetika eta erabilitako teknikek («Pragako Teatro Beltza»ren teknika esate baterako), adin guztietako ikusleentzat aproposa bihurtzen dutela.

Aipatzekoa da ere lan honetan musikak daukan garrantzia, eta berau Juan Carlos Pérez «Itoiz» taldekoak konposatua dela.

Bernardo Atxaga, Juan Carlos Pérez eta Maskarada. Piztikume talde ederra zirku honetarako. Eta ekilibrista denon gainean, zirkuaren goiko puntan, goi-goian, bere piruetarik ikusgarriena egiteko prest: antzerkia.

## FITXA ARTISTIKOA

**Egilea:** BERNARDO ATXAGA

**Egokipena:** PATXO TELLERIA

**Aktoreak:** IÑAKI AGIRRE, MAITE ARRESE AITOR ARGOTE

**Eskenografiaren diseinua:** ANA IRIGOIEN

**Laguntzaileak:** MARTA IRIGOIEN, DORLETA URRETA, MANU MUNIATEGIANDIKOETXEA

**Jantzien diseinua:** ANA IRIGOIEN

**Jantzien burutapena:** MARIVI GARAITAONAINDIA

**Musika:** JUAN CARLOS PEREZ

**Musikaren egokipena:** KARLOS PANERA

**Musikalariak:** RICARDO RIBERA «RIKI» ALBERTO IRIONDO

**Grabaketak:** «TIO PETE» ESTUDIOA

**Argiak:** JON MESPERUZA

**Soinua:** JUSTO OZAETA

**Zuzendaria:** KARLOS PANERA

**Jestioa:** ANE CARRACEDO

# DEA

**Eguna:**
**Abenduak 18 Ostirala**

**Ordua:**
**Gaueko 9,30etan**

**Lekua:**
**Zelaitxo**

**Antzezlana:**
**«LOGALEA ZEUKAN EKILIBRISTAREN KASUA»**



# ANTXIETA ANTZERKI TALDEA



Eguna:
Abenduak 19 Larunba

Ordua:
Gaueko 9,30etan



LDEA

## SINOPSIA

Antxieta Antzerki Taldeak, bere hamargarren urteurrena dela eta antzezlan berezi bat eskeini nahi du X. Euskal Antzerki Topaketetan.

Oraingo hau ez da atzean utzitako antzezlanen antzekoa. Gure nahia beti izan da geuk burututako antzezlan bat aurrera eramatea, eta oraingoan lortu dugula uzte dugu. Gaur arte beti izan dugu oinarri bezala idazle eta textu bat; beraz esperimentu moduan, antzerki hau geuk egitea erabaki dugu. Hasieran inprobisaketa hutsak zirenak, azkenean textu bilakatu dira eta ondorioz NORNORINORK (Hau saltsa) antzezlana sortu da.

Antzezlari berriak era baditugu obra hontan, aurrekoekin batera era guztietako pertsonaiak antzezten dituzte.

Zuzendaritza aldetik ere badu berezitasuna eta bat nahikoa ez balitz, hiru zuzendarik borobilduko dute lana. Beraz, ordubete zoro bat igaro nahi badezue, zatozte NORNORINORK (Hau saltsa) ikustera.

## FITXA TEKNIKOA

**Eszena tokia:**
8 m. zabal, 5 m. zakon.

**Argi indarra:** 12.000 W.

**Antzerkiaren iraupena:**
Ordu bat.

## FITXA ARTISTIKOA

**Gidoia:**
NAGORE ARANBURU (ANTXIETA ANTZERKI TALDEA)

**Antzezlariak:**
LEIRE BETEGI
NAGORE ARANBURU
AINTZANE ARANBARRI
IDOIA URANGA
PILI CIRCUJANO
PILAR AZPITARTE
JOXE ARANBURU
IMANOL GURIDI
TXEMA GESALAGA

**Zuzendaritza:**
INAZIO TOLOSA
EDI NAUDO
MITXEL GORROTXATEGI

**Eszenografia:**
IMANOL GURIDI

**Eguna:**
**Abenduak 19 Larunbata**

**Ordua:**
**Gaueko 9,30etan**

**Lekua:**
**Zelaitxo**

**Antzezlana**
**«NORNORINORK»**



# GOLOKA ANTZERKI TALDEA





Eguna:
Abenduak 20 Igand

Ordua:
Eguardiko 12,30et



ALDEA

## SINOPSIA

Kale antzerkirako ikuskizun musikala da, euskaraz, haurrentzako egina, ulerterraza, parte hartzekoa eta mugimenduz beterik. Antzerkia, bost kide diren oilo abeslari famili batetan datza. Abestien bidez aurkeztu ondoren, heuren trebetasunak azalduko dituzte *RAP* abestu eta dantzatzen duten bitartean. Baina otsoa ageriko da (oiloen etsaia) eta egoera korapilatu egingo da. Azkenean, txirula majikoari esker dena konponduko da eta dantza eta abestien bidez ospatuko dute.



## FITXA TEKNIKOA

Sarrera duen enparantza, frontoi edo antzeko leku bat furgoneta barrura sartu ahal izateko.

**Eskenatokia:**
12x25x4 metrotakoa gutxi gora behera.

**Argi indarra:**
220 V. eta 3.000 W.

**Hamabost bat** hesi gune eskenikoa inguratzeko.

**Muntairako denbora:** 120 minutu.

**Desmuntairako denbora:** 60 minutu.

## FITXA ARTISTIKOA

**Zuzendariaren izena:**
JOSEBA ANDONI LARREATEGI

**Antzerkiko banaketa:**
AXIER LARRINAGA, Aktorea
IÑAKO BLAS, Aktorea
GONTZAL KANELA, Aktorea
GORKI SAGARMINAGA, Aktorea
AXIER ESTANKONA, Aktorea
KEPA LLAMAS, Soñua

**Eguna:**
**Abenduak 20 Igandea**

**Ordua:**
**Eguardiko 12,30etan**

**Lekua:**
**Enparantza Nagusia**

**Antzezlana:**
**«AMERIKAR...»**




# SHOW AMAIERA

Eguna:
Abenduak 21 Aste

Ordua:
Gaueko 7,30etan



## SINOPSIA

Golden Apple Quartet (Golden sagarraren Laukotea) 1986.eko urrian osatu zen lauon lagun batek zoritxarreko istripu bat izan ondotik: ezkondu zen. Ospakizunean lauon ahots zoliak entzun ziren argizarien argi hitsetan, eta orduz geroztik betiereko maitasuna agindu zioten elkarri. Senar-emaztegaiek ere bai.

Bat egite horren fruituak dira zenbait ostatu, lokal eta diskotekatan, eta Euskal Herrietako festetan egindako emanaldi ugariak. Telebistan ere azaldu izan dira.

Beren obren artean godspell musika da nabarmenena (beltzen musika izpirituala). Musika hori eginez hasi ziren kantari ibiltzen. Gero beste musika mota bateko gauzak sartu zituzten, beti ere jazz-aren mundutik atera gabe, klase guzietako jendeari atsegin dakizkionak.

Beren emanaldietan umorea jaun eta jabe da, jendeak kantatzen ari direla ahazteko erremedio bakarra delarik. Jende asko joan eta arrakasta haundi samarra izaten dute nahiz eta, egia esan behar bada, haiek diren lehenbizi harritzen direnak.

Hauexek dira: Loyola Garmendia, Eduardo Errodonsoro, Cruz María Larrañaga «Larra» eta Enrique Otxoa «Kike».

ERA

**Eguna:**
Abenduak 21 Astelehena

**Ordua:**
Gaueko 7,30etan

**Lekua:**
Zelaitxo

**Antzezlana:**
SARI BANAKETA eta... GOLDEN APPLE QUARTET

## ESKOLA ANTZERKIAK

| EGUNA | ORDUA | LEKUA | TALDEA | ANTZEZLANA (K) |
|---|---|---|---|---|
| **ABENDUA** | | | | |
| Asteazkena 9 | Goizeko 11etan | ZELAITXO | HERNANIKO EREÑOZU HERRI IKASTETXEA GOI ZIKLOKOAK | AMETS GAIZTOA |
| Asteazkena 9 | Arratsaldeko 3etan | ZELAITXO | DURANGOKO KURUTZIAGA IKASTOLA GOI ZIKLOKOAK | MUSU BATEN BILA |
| Astelehena 14 | Goizeko 11etan | ZELAITXO | BILBOKO ZAMAKOLA-J. DELMAS HI HASERA ZIKLOKOAK | BOTADUN KATUA<br>BREMENGO MUSIKARIAK<br>MAKILAKIXKI |
| Astelehena 14 | Arratsaldeko 3etan | ZELAITXO | BILBOKO KARMELO IKASTOLA GOI ZIKLOKOAK | ORGANIZAZIOA RESTAURANTEAN |
| Asteartea 15 | Goizeko 11etan | ZELAITXO | AZPEITIKO BATXILLER INSTITUTOA BBB | ZIRT ETA ZART |
| Asteartea 15 | Arratsaldeko 3etan | ZELAITXO | GASTEIZKO ODON APRAIZ IKASTOLA ERDI ZIKLOKOAK | SORGIN IRRINTZIA<br>ERREGE ZORRIA |



**ANTOLATZAILEA**

**AZPEITIKO UDALA**
(KULTUR BATZORDEA)

**LAGUNTZAILEAK**

Gipuzkoako Foru Aldundia

ANTZERTI · EVSKO JAVRLARITZA · KVLTVRA SAILA ·

RADIO EUSKADI IRRATIA

ETB EUSKAL TELEBISTA

Inprimategia: Martínez, C.B. D.L.: S.S. - 1.148/91